



Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2024ko urtarrilaren 9a

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>


Miriam Luki

(Urretxu, 1973)

Miriam Luki Albisua euskal kazetaria da. Euskal Herriko Unibertsitatearen Leioako campusean ikasi zuen kazetaritza. Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondokoa ikasi zuen Mondragon Unibertsitatean eta bertan ikasitakotik abiatuta, 2011n **Euslandia: Unibertso Txiki Baterako Galderak** liburua idatzi zuen.

Gaur egun, Goierriko Hitzan egiten du lan. 2023ko Gipuzkoako Liburudenden Elkarteak Zilarrezko Euskadi saria eman zion **Argialdiak** ipuin liburuarengatik.

Argialdiak



Ogiaren usaina eta izuarena. Hitzen pisua eta iraganarena. Nola eraman guztiak gorputz bakarrean? Zer esan merezi izan ote duen jakin nahi duenari eta zer prestatu azkena izango den afari handirako? Noraino garen ahizpa eta zenbat gehiago iraua dezakeen ihartzen utzitako laguntasunak; zenbat trago izango ziren denera, zenbat airean kiskalitako hegazkinak.

Gisa horretako galderak dabilta Miriam Lukiren estreinako ipuin liburuko protagonisten buruetan. Maitale, lagun, senide zein klase arteko harremanen ertzak behatu ditu idazleak bederatzi kontakizun hauetan, nola, isiltzearen isiltzez, zerbait pitzatzen den azkenean eta tartetik argi-zirrinta bat sartu, joan edo geratu,

ezinbestean erabaki behar ez dela ohartuz.

Miriam Lukiren argitalpenak

Euslandia: Unibertso Txiki Baterako Galderak (2011)

Argialdiak (2023) **N LUK**

Kritikak esandakoak

“...Anitzak dira bederatzai ipuinotako pertsonaiak, baina deigarria egiten da ia guztien karakterizazioan lanbideak duen pisua: okina, etxeko langilea, harakina, arropa-saltzailea, itzultzailea... Denbora eta bizitza markatzen, determinatzen du lanak ipuin askotan, eta idazleak materialtasun horretatik eraikitzen ditu pertsonaiak. Nago fisikotasunari emandako arreta horrek egiten duela berezi eta interesgarri Lukiren begirada, besteak beste. Eta pertsonaiei buruz aritzean ere haien gorputzetan jartzen du arreta narratzaileak: hazten ari den buru batean, belauniko komun-zuloaren aurrean dagoen gorputzean, atzamarrean estuegi geratzen den eztei-eraztunean...

Ideietatik bainoago keinuetatik, usainetatik edo objektuetatik abiatzen da idazlea ipuinak osatzeko, eta hala lortzen du atmosfera propio bat eraikitzea ipuin bakoitzari, ahalik eta elementu gutxien erabiliz, eta irakurleari ipuinak osatzeko tartea utziz. Garapen narratiboan bainoago, une eta giro jakinak sortzeko trebezian dago narrazio labur hauen indarra, izan ere, baina baita pertsonaien eraikuntzan ere, eta orobat idazlearen berezko estiloan: zorrotz behatzen duen narratzailea, ironiari tartea uzten diona, eta hitz doia aurkitzen duena aldiko.”

Ibon Egaña / Deia, 2023-06-24

“... Harreman konplexu horien tolesturetan arakutzen du Lukik, distantzia horiek neurtzen ditu tentsio narratiboa sortuz, giroak egoki girotuz. Horren adibide da lehenbiziko ipuina, Nora izenburuduna, non eguraldiaren ñabardurekin —haizearen ufadek itxitako atearen zarata, esaterako— protagonistak gizon baten presentzia dela-eta bizi duen beldurra islatzen den. Oro har, liburuaren teknika literarioa nabarmenduko nuke: zehar estilo librea, pertsonaien arteko plano aldaketa sotilak —Soufflea narrazioan, etsenplu bikaina—, denbora narratiboaren kudeaketa egokia, balio sinbolikoa izan eta bide batez tentsioa areagotzen duten elementuen erabilera —Magnolia, Paseoa—. Idazkerari dagokionez, hitz doiekin adierazkortasun handia lortzen du idazleak, gehienetan efektismorik gabe lortuz esan-indarra. Ipuin-liburu onen oihartzuna du, izan ere, Argialdiak-ek, geruza bat baino gehiagokoa, anbiguotasun aberatsekoa.”

Asier Urkiza / Berria, 2023-05-14

Erabilitako iturriak

Wikipedia

https://eu.wikipedia.org/wiki/Miriam_Luki

Kritiken hemeroteka

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8808>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8804>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8783>